

Euskal AEko helburu-biztanleriaren % 71 inguruk kolon eta ondesteko minbiziaren baheketa egin du, eta % 76k bularreko minbiziarena 2020an

Eustatek jarraitzen du adierazle berriak barne hartzen, Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendaren helburuak eta helmugak lortzeko bidean aurrera egiteari buruzko informazioa emateko

Eustatek jarraitzen du Euskal AEn Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendan jasotzen diren 169 helmugen eta garapenerako lankidetzako 17 helburuen betetze-maila kalkulatu ahal izateko estatistika-adierazleak etengabe areagotzeko eta bereizteko duen konpromisoarekin.

Oraingoan, guztira, 21 estatistika-adierazle berri jaso dira Eustaten [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleen zabalkunderako plataforman](#). Adierazle horiek Euskal AErako zehaztu dira, Nazio Batuen gidalerroei jarraikiz, haien garrantzia eta interesa aintzat hartuta. Adierazle horien bidez, garapen jasangarrirako helburu guztien berri ematea lortzen da, behintzat partzialki.

Eustaten plataforman barne hartzen diren adierazleen artean –haien bidez osatu egiten dira dagoeneko Euskal AEn dagoeneko informatutako Nazio Batuen helburu, helmuga edo adierazleak–, **Kolon eta ondesteko minbiziaren populazio-baheketak hartzen duen biztanleriaren proportzioa** eta **Bularreko minbiziaren populazio-baheketak hartzen duen biztanleriaren proportzioa** daude, gaixotasun ez-kutsakorrek prebenitzeko adierazle gisa, hilkortasun goiztiarra murrizteko baliagarriak.

Helmuga 3.4 2030. urterako, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea

Adierazle 3.4.1 Heriotza-tasa, gaixotasun kardiobaskularrei, minbiziari, diabetesari eta arnas gaixotasun kronikoei egozten zaiena

3 OSASUNA ETA ONGIZATEA 	Kolon eta ondesteko minbiziaren populazio-baheketak estalitako biztanleriaren proportzioa				
		2015	2018	2019	2020
	Euskal AE	70,40	72,30	71,50	70,90

Bularreko minbiziaren populazio-baheketak estalitako biztanleriaren proportzioa

	2015	2018	2019	2020
Euskal AE	80,80	77,20	76,70	75,80

Kolon eta ondesteko minbiziaren populazio-baheketa % 70etik gorakoa da, eta bularreko minbiziarena % 75etik gorakoa helburu-biztanlerian.

Eustaten plataforman orain arte Euskal AEn jakitera ematen ez zen Nazio Batuen adierazle baten berri emateko sartzen diren estatistika-adierazleen artean, honako hauek daude: **Ibaien ur-masen kalitatea** eta **Gainazaleko ur-masen kalitatea**. Nazio batuen honako adierazle honen barruan sartzen dira: **Kalitate oneko uren proportzioa**.

Helmuga 6.3 2030. urterako, uraren kalitatea hobetzea, alegia: kutsadura murriztea; hondakin, produktu kimiko eta material arriskutsurik ez isurtzea; tratatu gabeko hondakin-uren ehunekoa erdira murriztea; eta arriskurik gabeko birziklatzea eta berrerabilera nabarmen areagotzea mundu osoan

Adierazle 6.3.2 Kalitate oneko ur-masen proportzioa

6

UR GARBIA
ETA SANEAMENDUA



Ibaietako ur-masen kalitatea				
	2015	2018	2019	2020
Euskal AE	45,50	60,30	45,70	48,00


Lurrazaleko ur-masen kalitatea				
	2015	2018	2019	2020
Euskal AE	48,10	61,80	50,00	53,00

Ur-masen kalitateak nabarmen egin du hobera 2015aren eta 2020aren artean, baina mailarik altuena 2018an ikusi zen.

Adierazle berri horiek sartu ondoren, Euskal AE osorako 2030 Agendan jasotzen diren garapen jasangarrirako 17 helburuen berri ematen duten 182 estatistika-adierazle daude. Moltzo handi bat, gainera, lurralde historikoaren eta/edo sexuaren arabera banatzen da, eta helmugen betetze-mailaren ikuspegi zehatzagoa eta fokalizatuagoa ematen du.

Jarraitzen da [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendaren adierazleak zabaltzeko plataforman](#) adierazle berriak etengabe sartzeko lanean, batetik, dagoeneko argitaratutako estatistika-adierazleen bereizketak eskaintzeko, eta, bestetik, egun arte bete ez diren helmugen eta adierazleen gaineko informazioa ematen duten adierazle berriak sartzeko. Garapen jasangarrirako helburuaren arabera estaldura kuantitatiboa ez da uniformea, histograma honetan egiaztatzen den bezala. Gaur egun, esaterako, adierazle bakar batek ematen du 14. helburuaren berri, eta 31 adierazlek, 3. helburuaren berri. Ahalegina egingo da Euskal AE osorako eta lurralde historikoetarako estatistika-adierazleak lortzeko gutxien informatutako helburuetan.

GJHeK informatutako adierazleen kopurua



Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62